

MUSIKA

Berrasmatu eta hazi



JON IRAUNDEGI

IKER BARANDIARAN


Egunen batean bizitza mila modutan baldintzatu digun fenomenoak bukatuko balitz, hasi ahal izango ginateke –kristauak egin ohi zuten trazar– urteak pandemia aurretik (p.a.) eta ondoren (p.o.) zenbatzen. Bada, gogoan daukat aspaldi (p.a. jakina!) gure artean ez dagoen Gaizka lankide eta laguna zenak Willis Galdea Oñatin deskubritu eta diskoa –haien lehena– ekarri zidala. Soinu gordina zeukan, findu gabekoa, baina a zer emaitza! Fugaziren pareko irmotasun eta intentsitatea, hard-rockaren (AC-DC?) soltura eta gitarrak, eta euskaraz galantki eta sentimenduz abestua.

Gerora askotan ikusi eta entzun ditut, eta gozatu ditut haien kontzertuak. Taldea dotorea da ezberrik gabe, ezaugarri

on asko ditu. Gero eta harrera beroagoa, merezitakoa, erdietsi zuten, eta horren ondorioz heldu zen puntu bat non, sententzia dut, taldekideak arraro sentitu zirela. Estutasun hura gainditu eta aurrera egin zuten, baina azken urteotan zerbait zuten faltan, freskotasuna agian.

Eta, hara!, aulki eta maskaradun kontzertu arraro horietako batean Oñatin (berriro!) sartu ahala pentsatu nuen penaz “akustikoan?”. Bada, berehala emanaldian barneratu ninduten eta izugarri gozatu nuen: a zer berrirakurketa! Jurgi Ekiza, Xan Bidegain, Felix Buff eta Vincent Bestaven –fitxaketa berria– haien kantutegia berridazten oso-oso modu dotore eta zainduan.

Badira Willis Drummond bakarrik elektrikoan maite dutenak, baina nire



GARAI BEREZIENDAKO KONTZERTU BEREZIA

WILLIS DRUMMOND

TABULA RASA, 2021

ustetan proposamen berri honetan erabat berretsi dute kanta bat ona bada biluzik ere hala dela egiaztatzen duen ustea. Eta biluzik baino, distortsiorik gabekoa zehaztu beharko nuke, kantak ñabardura askorekin janzten dituzte-eta.

Kantek beste tempo bat hartzen dute, bakoitzak berea; folka, *americana* delakoa eta rocka oso zentzu zabalean, 70eko hamarkadakoa ere. Ekizaren ahots ederra are gehiago nabarmen-tzen da, eta Iparraldeko eskolari jarraituta besteen ahotsek ere pisua hartzen dute. Bada tentsioa, bada melodia ugari eta bada detaile zaindu asko.

Nire ustez emaitza izugarria da, eta asko poztzen nau kontzertu berezi horietako bat –15 kantakoa– diskora ekarri izanak. ●